

Grabazioak egiteko jarraibide orokorrak

ahotsak.eus

Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

Elkarrizketa dialektologiko edo etnografikoak egiteko jarraibide orokor batzuk dira hauek, Badihardugu elkarteari euskalkia eta ahozko ondarea jasotzeko lanean erabiltzari gertatutako zenbait irizpide. Irizpide orokorrak dira, asko jakinak eta begibistakoak, baina lagungarri izan daitezkeelakoan, hementxe zuretzat.

Kontaktua egiteko orduan

- Familiako baten laguntza izatea interesgarria izan daiteke, gehienbat hizlari nagusiekin.
- Hasiera batean lanaren garrantzia txikitu; ez beldurtu elkarrizketatua. Aipatu lan txiki bat egiten zaudela, eta norbaitek esan dizula bera informazio-iturri ona izango dela. Lehenengo momentutik ahalegindu hizlaria gai horretara bideratzen. Hasiera batean ez esan bideoz grabatuko duzula, Interneterako dela... Elkarrizketatua lasaitu ondoren emango dizkiozu azalpen gehiago, eta ondo hartuko ditu.

Hasi aurretik

- Ondo dokumentatu eta galdetegi egokia prestatu.
- Hiztunak hasieratik garbi izan behar du zein den elkarrizketaren helburua.
- Galdeketa motak eta galdetegiak:
 - Ahozko Ondarea jasotzeko: galdera gutxi, haria libre
 - Gai jakina jasotzeko: galdera zehatzagoak eta gehiago
 - Hizkera jasotzeko: elkarrizketa libreak ere interesgarriak izan daitezke, baina komendi da hasieratik helburuak argi uztea, hizlariaren jarduna murriztea, eta galdetegi zehatza atontzea. Hizlariak ere hobeak izan behar dira, hizkera aberatsarekin eta buru argiarekin.
- Argi utzi ez dela azterketa bat. Esaten duen guztia lagungarri izango zaigula, baina ez duena gogoratzen ez dela bere eta gure kalterako izango.

Elkarrizketan

- Lehenengo eta behin, zure burua aurkeztu, ahalik eta gehien. Horrek lasaitasuna eta konfidantza emango dio elkarrizketatuari.
- Hasiera batean, elkarrizketaren helburua edozein dela ere, galdera orokor batzuk egin, hizlaria lasaitzeko, parean duen bideokamera ahazteko, zure konfidantza lortzeko... Galdera egokiak izan daitezke: non jaio zen, non bizi izan den...

- Ezagunak izan arren, **komeni da hitzunak berak bere izen-abizenak eta jaioteguna esatea kameran**. Grabazioan geratuko da. Beharbada guretzat ezaguna izango da, baina urte batzuk barru grabazioa besteren batek hartzen badu, datu horiek asko eskertuko ditu.
- Grabazioan familiako batzuk egotearen ondorioak. Abantaila: hitzunari lasaitasuna ematea (ez beti), eta batez ere hitzunak gogoratzen ez dituen kontu batzuk gogoraraztea ("ama, konta ezazu zure familiako pasarte hori!"). Desabantaila: kontrakoa normalagoa izaten da. Alabak amaren jarduna moztea, elkarrizketan larregi sartzea, gaztelaniarako joera handiagoa izatea...
- **Hitzunaren jarduna ahalik eta gutxien moztu**. Elkarrizketan zehar galdera bat bururatzen bazaigu, orri batean idatzi, eta gero galdetu. Hitzunaren haria sekula ez moztu. Bi arrazoi nagusi: (1) sekula ez dakigu hizlariak noiz emango digun informazio interesgarri eta berria; (2) materialaren hedapenerako ere, hitzunaren hitzak behar ditugu, ahalik eta hitz-jario luzeena, eta ez guk etengabe moztzen dugun jarduna.
- Kontatu duen zerbait ea ezagutzen dugun galdetzen badigu, ezetz esan. Elkarrizketan zehar ere zure "ezjakintasuna" erakutsi (neurrian, noski: ez dezala ergela zarenik pentsatu). Bi arrazoi: (1) Hizlaria harro sentitu behar da; bere azalpenak garrantzitsuak direla ohartu behar da. (2) Hedapenerako azalpen luzeagoak eta zehatzagoak lortuko ditugu (zerbait ezaguna zaigula esaten badiogu, ez du azalduko). Adib. "Ez dakit oso seguru/ondo... esplikaidazu, faborez".
- Ez egin galdera bat baino gehiago aldi berean. Galderetako bat erantzun gabe geratzeko arriskua dago. Adibidez: "Noiztik bizi zara hemen? Gustura al zaude herrian?".
- **Ez egin bai/ez erako galderarik**. Puntu honek garrantzia berezia dauka. Hizlariak erantzun luze bat ematea nahi dugu, eta ez "bai" edo "ez" bezalako erantzuna. Adibidez:

- Gabon gauean bakailaoa jaten zenuten, ezta? **Galdera okerra**

- Zer jaten zenuten Gabon gauean? **Galdera zuzena**

Alderdi teknikoa

- Ahalegindu beti grabazioak bideokamerarekin egiten. Gaur egun ez da zaila bideokamera lortzea, eta irudi ona grabatzea inportantea da.
 - Mikroduna izatea komeni da: mikrorako sarbidea duena. Elkarrizketatuaren ahotsa ondo grabatzea oso garrantzitsua da. Grabatutakoa ez dela ondo ulertzen edo entzuten ikustea etsigarria da elkarrizketatzailearentzat.
 - Tripodea erabili, irudi finkoa lortzeko. Mugitzen bada, gaizki geratuko da.
- Mobila/sakelako telefonoa hobe ez erabiltzea, baina erabili nahi baduzu:
 - Erabili tripodea beti! (badaude tripode txikiak smartphonentzat, mahai gainerako)

- Grabatu beti horizontalean, zinean bezala (bertikalean ez): pantailak horizontalak dira.

-Zaindu irudiaren kalitatea. Grabatzen hasi aurretik, begiratu irudiaren kalitatea nolakoa den. Saiatu aparatu on samarra erabiltzen (beharrezkoa bada, eskatu).

-Ez jarri oso urruti, bestela ez da elkarrizketatuaren ahotsa ondo entzungo.

- Enkoadrea zaindu, beti (argazkilaritzako arauak honetarako ere balio dute):

- Plano zabal samarra hartu, baina pasatu gabe: hizlaria pixka bat mugitu arren, planotik ez irteteko modukoa. Burua nahiko goian jarri, eta ahal dela eskuak ere hartu; gehienbat eskuekin ere azalpenak eman behar badizkigu (jolasak edo lanbideak jasotzeko asmoa badugu, esate baterako; kantak jasotzeko ez du hainbeste inporta). Kontuz begiradarekin! Begiratzen duen aldean espazioa egotea komeni da: arnagunea.



ONDO



ONDO



HOBETZEKO

Begirada planotik kanpora doa.

Nola hobetu?

1. Enkoadrea aldatuta (kamera ezkererantz jiratu pixka bat).
2. Elkarrizketatzailea lekuz mugituta, kameraren beste aldera (elkarrizketatuak begirada aldatu dezan).

- Plano fijo utzi. Hau da, bideokamera metro eta erdi ingurura jarri, eta ahalik eta gutxien ukitu. Horrela, hizlariari ahaztu egingo zaio kamera bertan duela. Zenbat eta gehiago ukitu bideokamera, gehiago aztoratuko da elkarrizketatua.

- Ea dena ondo dagoen begiratzea komeni da noizean behin, ziurtatzea ondo ari dela grabatzen. Beharrezkoa bada, grabazioan zehar planoak aldatu: hizlaria mugitu egin bada, berriz enkoadratu.

- Argiztapena zainduta, grabazioaren kalitatea izugarri hobetuko duzu:

-Argi den-denak piztu, egunargiz izan arren. Ahalik eta argi gehien egotea komeni da.

-Foko bat erabiltzea da onena. Nahiz eta argi nahikoa dagoela iruditu, ez da soberan egoten.

-Elkarrizketatua ez jarri kanpoko argiari bizkarra emanez, ez eta argiak perfilez ematen diola ere. Ez izan beldurrik lekuz mugitzeko eskatzeko. Adibidez:



ONDO



Ez zaio aurpegia ikusten. Gainera, espazioa/arnasa ere falta zaio begiratzen duen aldean.

Nola hobetu?

Argiari begira jartzeko esan, eta zu jarri argi-kontran, kamerarekin.

Enkoadrea ere hobetu.

HOBETZEKO



Argi-kontran dago.

Nola hobetu?

Argiari begira jartzeko esan, eta zu jarri argi-kontran, kamerarekin. Tokirik ez badago, pertsianak itxi eta gela ondo argiztatu (bertako argiak eta fokoa).

HOBETZEKO

- Soinua zaindu. Askotan ez dago gure esku, baina batzuetan bai:
 - Mikroa ondo dabilela ziurtatu, uneoro. Aurikularrak jantzita eduki. Bestela, posible da pila agortzea eta ez konturatzea. Mikro zaratak badaude, geratu eta mikroa ondo jarri.
 - Isiltasuna eskatu: Irratia edo telebista piztuta badauka, itzaltzeko eskatu. Inguruan jendea berrikeretan baldin badago ere berdin: kamera aurrean ez dagoenari esan ezin duela hitzik egin, bestela grabazioak ez duelako balioko. Dena entzungo dela gero.
 - Ate eta leihoak itxi, kanpoko zarata gutxiago entzun dadin.
- Grabazioari buruzko datu guzti-guztiak lehenbailehen idatzi fitxa batean: hizlariaren datuak, jaioteguna, biografia, data, lekua, alderdi teknikoak, bestelako oharra... Orain buruan dituzu, baina astebete barru, ziurrenik, ez.
- Grabazioa deskargatu, eta izena ipini. Datuak ordenagailura pasa. Gutxienez hauek: izen-abizenak, jaioteguna, herria, grabazioaren data... Hortik gora, zenbat eta datu gehiago, hobe.

Badihardugu Euskara Elkartea, 2017

ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea